



MERKATU-SEGMENTUA

Plastikozko ontziak erosten duten erakunde edo pertsona taldeentzat dago zuzendua. Kasu honetan, gure asmoa erakunde publikoekin edo enprekin harremanetan jartzea da, plastikozko ontzi hauen kudeaketa kontrolatu ahal izateko. Horretarako, enpresa edo erakunde hauen partehartzea guztiz beharrezkoa da, gu plastikozko ontzien birziklapena kontsumitzaileengana hurbildu ahal izateko. Gure zerbitzua alokatuko dugu, kontsumitzaileen birziklatzeko beharra asetzeko.

Batez ere, udalei, jai batzordeei, kirol taldeei etab. zuzenduko dugu gure produktua. Dena den, kontsumitzaileak bestelakoak izango dira: gazteak, umeak, helduak... Gure estrategia zera da, plastikoak eragindako kutsaduraz arduratzen direnei zuzentzea.

Merkatuari buruzko erabakiak desberdinak izango dira:

Biztanlerian plastikoaren birziklapena motibatzea dugu helburu, horretarako, plastikoaren erabilera egokia sustatu eta materialen birziklapena handitzeko prozesu bat eskaintzen dugu.

Marketin strategiari dagokionez, gure burua birziklatzeko tresna moduan aurkezten dugu, gizarte erantzukizunaren bitartez. Ideia hau erabiliko dugu beste enpresa batzuekin akordioak egiterakoan gure produktua erakargarri egiteko. Makina merkaturatze-kostu gutxiengo estrategia erabiliko dugu, ondorioz, gure produktua kontratatzen duten enpresek baldintzatuko dute kontsumitzaileen esparrua. Hau da, *desberdindu gabeko estrategia* segmentu ezberdinetan marketin-mix berdina erabiltzen da, hots, produktu, prezio, banaketa eta sustapen politika berdinak.


Gure helburua, plastikozko edalontzien birziklapena sustatzea da. Jaietan bereziki. Jaietan eta holakoetan, gazteak ibiltzen dira gehien bat, eta halere gehiengoak ez du birziklatzen. Horregatik gazteetan zentratuko gara. Berez, gure produktua udalei, jai batzordeei, kirol taldeei eta abarrei salduko diogu. Halere, aurretik esan bezala, kontsumitzaileak bestelakoak izango dira: gazteak (gehiengoa), umeak, helduak...

Bi zatitan banatu eta aztertu dugu gure produktuan bezero eta kontsumitzaileek zer-nolako eragina izango duten EAE-n, hona hemen gure grafikoak:





KONTSUMITZAILE SEGMENTUA



BEZERO SEGMENTUA

